

«Bat egin nahi duzu iraunkortasunaren erronkarekin?»

onlineko prestakuntza-unitatearen irakaskuntza- gida

10. edizioa: 2023ko otsaila-martxoa

Graduko ikasleen prestakuntzarako proposamen bat:

- Online-prestakuntzaren iraupena: 6 aste
- Ordu kopurua: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu)
- Ikastaroaren hizkuntzak: gaztelania eta euskara
- Irakasleak: UPV/EHUko Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko Zuzendaritzako kideak eta laguntzaileak

Bat egin nahi duzu iraunkortasunaren erronkarekin?

1. Aurkezpena

«Bat egin nahi duzu iraunkortasunaren erronkarekin?» ikastaroaren helburua zera da: iraunkortasunaren kontzeptuarekin loturiko alderdi eta ikuspuntu garrantzitsuenak zein diren jakitea, ikuspegi batez ere praktiko batetik, erantzukizun pertsonalean oinarrituriko konpromisoa sustatzeko.

Ikastaroan zehar, ikasleak zenbait material eta tresna eskuratuko ditu iraunkortasunarekin loturiko gaur egungo erronkei buruz gogoeta egiteko, bai ingurumenaren arloan, bai sozialean, bai ekonomikoan.

Horretaz gainera, aukera izango du Euskadiko proiektu garrantzitsuenetariko batzuk ezagutzeko eta inguru hurbileko ekimenen batean parte hartzea planteatzeko, iraunkortasun lokalaren esparruan, ahal dela UPV/EHUko ikastegiren batean edo campusean bertan, ikastaroaren ondotik ere proiektuok unibertsitatearen ekimenen batekin lotzeko:

- Campus Bizia Lab Programa:
<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/campus-bizia-lab>.
- Ocean i³ Programa:
<https://euskampus.eus/eu/programas/campus-euroregional/oceans-i3>
- IKDgazte Programa:
<https://www.ehu.eus/eu/web/ikdgazte/aurkezpena>
- Gaztenpatia Programa:
<https://www.ehu.eus/eu/web/oficop/gaztenpatia>
- Berraktibatu + Unibertsitateak
<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/berraktibatu-unibertsitateak>
- Ingurumena Hobetzeko Taldeak:
<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ikastegiak-ingurumen-kudeaketa>
- Gu Geu bolondres Programa:
<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/actividades-solidarias-cooperacion-autogestionadas>

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea ikastaroak aintzat hartzen duela, estimulu gisa, talde-lanak eta, horrenbestez, beste ikasleekiko interakzio pertsonalak, aurrez aurrekoak eta birtualak dakarten zorrozotasuna.

Irakasle-plangintza hau honako atal hauetan banatzen da:

1. Aurkezpena	2. or.
2. Gaitasunak	3. or.
3. Edukiak	3. or.
4. Lan-metodologia	4. or.
5. Lan-plangintza	5. or.
6. Ebaluazioa	8. or.
7. Egutegia	9. or.
8. Bibliografia eta informazio-iturriak	10. or.

Ikastaroa UPV/EHUko graduiko ikasleentzat antolatu da, iraunkortasunarekin loturiko alderdiak eta gaur egungo erronka nagusiak ezagutzen hasi eta hezkuntzaren eta konpromiso pertsonalaren ikuspegitik nola landu ikas dezaten.

2. Gaitasunak

Ikastaroa amaitzerako, espero da parte-hartzaileek gaitasun hauek bereganatzea:

1. Iraunkortasunaren kontzeptuaren esanahia ulertzea eta haren dimentsio nagusiak deskribatzea (G1).
2. Iraunkortasuna beste kontzeptu batzuekin eta gaur egungo eztabaidekin lotzea dimentsio guztietan (G2).
3. Iraunkortasunarekin loturiko erronkak identifikatzea eta aztertzea, bai eskualde-mailan, bai ingurune eta testuinguru lokaletan, bai eta haien artean erlazionatzea ere (G3).
4. Ulertzea zer garrantzia duen hezkuntzak iraunkortasunean eta zer garrantzia duen konpromiso pertsonalak edozein ekimen garatzean (G4).

3. Edukiak

Ikastaroko edukiak bost gai multzotan egituratu dira:

- **1. gai multzoa: Iraunkortasunari buruzko gure pentsamenduak birbideratzen**
 - Iraunkortasuna: ikusmoldeak eta ikuspegiak
 - Iraunkortasunaren kontzeptua nazioarteko erakundeetan
 - Aztarna ekologikoa
- **2. gai multzoa: 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH)**
 - Garapen Iraunkorrerako Nazio Batuen Agenda
 - EHUagenda 2030 garapen iraunkorrari ekin
- **3. gai multzoa: Iraunkortasuna maila lokalean. Ekimen baten proposamena**
 - Iraunkortasun lokalerako ekimenen bat proposatzea
 - Lantaldeen lehen topaketa
- **4. gai multzoa: Ikuspegi zabaltzen. Iraunkortasuna eskualde-mailan**
 - Euskadin iraunkortasuna sustatzeko ekimenak
- **5. gai multzoa: Ekimenen eta kontzeptuen arteko harremana**
 - Lantaldeen bigarren topaketa. Ekimenen eta kontzeptuen arteko harremanei buruzko eztabaida lantalde-mailan. Ekintza-plana.

4. Lan-metodologia

Ikastaro hau nagusiki praktikoa denez, espero da ikasleek aktiboki parte hartzea, hau da, gai multzoetan landutako gaiei buruzko iritzi eta ikuspuntuak trukatzea.

Era berean, kontuan izanik ikastaroa «irekia» dela eta «egia/gezurra», «zuzena/okerra» eta «ongi/gaizki» binomioetatik harago joan nahi duela, espero da parte-hartzaileen ekarpenak bat etortzea landutako gaiei buruz dituzten iritzi zintzoekin, ezagutzan eta bilduriko esperientzian oinarrituta. Ikastaroko ikasle guztiek zerbait ikas dezaten, funtsezkoa da denek aintzat hartzea iritzi guztiak baliozkoak direla.

Sarrerako lehen bi gai-multzoen ondotik, ikastaroaren ardatza iraunkortasuna sustatzeko ekimen bat ikertzea, garatzea eta aurkeztea izango da, ikasleen testuinguru lokalarekin loturik, ahal dela UPV/EHUko ikastegi edo campusetan. Halaber, landuko da zer erlazio duen ekimen horrek iraunkortasunarekin loturiko alderdi orokor batzuekin eta Euskadiko beste ekimen batzuekin.

Kontuan harturik zer ekimen aurkezten diren, zer ikuspegi duten, zer ezaugarri dituzten edo non gauzatuko diren, 3-4 pertsonako lantaldeak eratuko dira. Lantalde bakoitza gutxienez bi aldiz bilduko da, aurrez aurre edo birtualki, taldekide bakoitzaren ikerketen emaitzak komentatzeko eta denen artean feedback-a lortzeko/emateko. Talde-

interakzioak irauten duen bitartean, gakoa izango da kontuan hartzea zenbait jarrerak kalitatezko elkarlanari laguntzen diotela; esate baterako, aktiboki entzuteak, enpatiak eta dibertsitatearekiko errespetuak.

Lan-plangintza eta jarduerak entregatzeko epeak Irakaskuntza Plan honen 7. atalean dagoen egutegian jasota daude.

Ikastaroan, foro orokor bat izango da, irakasle eta parte-hartzaileek elkarrekin komunikatzeko bide gisa erabil dezaten. Horretaz gainera, ikastaroko modulu bakoitzak zenbait foro espezifiko izango ditu talde-erabakidetakako, baita moduluak egoki egiteko beste tresna batzuk ere (galdetegiak, atzak, irakurgaiak, etab.). Halako guneetan aktiboki parte hartzea kontuan hartuko da jarduerak ebaluatzean.

5. Lan-plangintza

Lan-plangintza gaitetik bost gai multzoen inguruan egituratu da. Atal honetan, gai multzo bakoitzari dagozkion arlo hauek bildu dira: helburu espezifikoak, edukiak, materialak eta informazio-iturriak, eta egin beharreko jarduerak (ebaluagarriak zein ez-ebaluagarriak).

Ikastaroaren aurkezpena (aurreikusitako arduraldia: ordu bat)

Aurkezpen-saioa Webex plataforma birtualean (nahitaezko parte-hartzea). Ikastaroaren alderdirik garrantzitsuenak aztertuko ditu (ezaugarriak, iraupena, arduraldia, lanak, epeak, ebaluazioa, ziurtagiria...) eta parte hartzen duten ikasleen zalantzak argituko dira.

Saioaren data: 2023ko otsailaren 7an, 13:00etan.

1. gai multzoa. Iraunkortasunari buruzko gure pentsamenduak birbideratzen (aurreikusitako arduraldia: 7 ordu)

Helburuak	Edukiak	Materialak	Jarduera ebaluagarriak
- Iraunkortasunaren kontzeptua eta harekin loturiko dimentsioak zer diren ikastea eta gaur egungo eztabaida batzuekin lotzea.	- Iraunkortasuna: ikusmoldeak eta ikuspegiak. - 'Iraunkortasuna' kontzeptua nazioarteko erakundeetan. - Aztarna ekologikoa.	Oinarrizko materialak: Bideoa: The Overview Effect. Bideoa: The Geological Timeline. Bideoak: The Story of Stuff. Bideoa: gosariaren jatorria. Bideoak: UPV/EHUko komunitatea "Zer da garapen iraunkorra?" irakurgaia Aztarna ekologikoari buruzko materialak. Material osagarriak: THE Sustainable Development Timeline. Bideoa: ekonomia soziala.	1. jarduera: "Iraunkortasuna: zertaz ari gara?" foroa 2. jarduera: "Iraunkortasuna eta garapen iraunkorra kontzeptuak" galdetegia 3. jarduera: "Nire aztarna ekologikoa" foroa

2. gai multzoa. 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorraren Helburuak (aurreikusitako arduraldia: 5 ordu)

Helburuak	Edukiak	Materialak	Jarduera ebaluagarriak
- 2030 Agendak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) aurrera egiteko suposatzen duten aukeraz jabetu. - Gure egunerokotasunean 2030 Agendak proposatzen dituen GIH txeratzeko moduak identifikatu ta aplikatu	- Garapen Iraunkorrerako nazioarteko agenda -EHUagenda 2030 garapen iraunkorrari ekin	Oinarrizko materialak: Garapen iraunkorrerako 2030 Agenda irakurgaia 17 GIHen bideoa. UNESCO Etxea EHUagenda 2030 Material osagarriak: Mundua eraldatzea: garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. Nazio Batuen erabakia Garapen iraunkorrerako helburuen txostena Basque Country 2030 Agenda	4. jarduera: "Garapen Iraunkorrerako helburuak" galdetegia 5. jarduera: "2030 Agenda gure inguruan" foroa

3. gai multzoa. Iraunkortasuna maila lokalean. Ekimen baten proposamena eta lantaldeen lehen topaketa (aurreikusitako arduraldia: 10 ordu)

Helburuak	Edukiak	Materialak	Jarduera ebaluagarriak
<p>- Iraunkortasunerako ekimen bat identifikatzea, garatzea eta aurkeztea, ikaslearen testuinguru lokalarekin lotuta, ahal dela UPV/EHUko ikastegi eta campusekin lotuta.</p>	<p>- Iraunkortasun lokalerako ekimenen bat proposatzea.</p> <p>- Lantaldeen lehen topaketa.</p>	<p>Oinarrizko materialak: UPV/EHUko ikastegi eta campusetan iraukortasuna eta praktika onak sustatzeko ekimenei buruzko materialak.</p> <p>Material osagarriak: GGKEen eta UPV/EHUko ikastegi eta campusetako ikasle-elkarteen ekimenei buruzko materialak.</p>	<p>6. jarduera: "Nire ekimena" foroa</p> <p>7. jarduera: "Gure ekimena" foroa</p>

4. gai multzoa. Ikuspegia zabaltzen. Iraunkortasuna eskualde-mailan (aurreikusitako arduraldia: 4,5 ordu)

Helburuak	Edukiak	Materialak	Jarduera ebaluagarria
<p>- Iraunkortasunarekin lotura estua duten zenbait kontzepturen garrantzia ulertzea: pentsamendu sistemikoa, konplexutasuna eta konpromisoa.</p> <p>- Euskadin iraukortasuna sustatzeko garatzen ari diren ekimen batzuk ezagutzea.</p>	<p>- Euskadin iraukortasuna sustatzeko ekimenak.</p>	<p>Oinarrizko materialak: Dokumentua: Euskadin iraukortasuna sustatzeko ekimenak.</p> <p>Material osagarriak: Bideoa: Hans Rosling-en aurkezpena. Bideoa: ekonomia zirkularraren hastapenak.</p>	<p>8. jarduera: "Iraunkortasuna Euskadin" foroa</p>

5. gai multzoa. Lantaldeen bigarren topaketa: ekimenen eta kontzeptuen arteko harremana (aurreikusitako arduraldia: 10 ordu)

Helburuak	Edukiak	Materialak	Jarduera ebaluagarria
- Iraunkortasun lokalaren aldeko ekimenak, Euskadiko iraunkortasunaren aldeko eta 4. gai multzoko kontzeptu orokorrak erlazionatzea. Horri buruzko ikuspegiak operatiboki eta adostuta islatzea.	- Ekimenen eta kontzeptuen arteko harremani buruzko eztabaida lantalde-mailan. Ekintza-plan bat prestatzea.	Oinarrizko materialak: Dokumentua: Euskadin iraunkortasuna sustatzeko ekimenak. Bideoa: pentsamendu sistemikoaren hastapenak. Bideoa: konplexutasunaren hastapenak.	9. jarduera: "Elkarrekin iraunkortasunaren alde" foroa

6. Ebaluazioa

Ebaluatuko diren jardueren bidez, emaitza zehatzak lortuko dira hartutako ezagutzetatik, gogoetarako eta ekimenerako gaitasuna aberasteko –bai pertsonala, bai taldearena–, testuinguru lokaletan zein eskualde-mailakoetan.

Jarduerak ebaluatzeko irizpideen helburua, oro har, zera da: batetik, aztertzea zer gaitasun duten parte-hartzaileek beren ekarpen, iritzi eta ikuspegiak gai multzoetako materialetako edukiekin lotzeko, eta, bestetik, jakitea zer gaitasun duten beren iritzia argitasunez, zehaztasunez, arrazoituz, modu erakargarri batean eta errespetuz emateko, gainerako iritzi eta ikuspegiak kontuan hartuta.

Ebaluazioa egiteko, aintzat hartuko dira foroetako ekarpenak, galdetegiak zereginak eta bestelako tresnak. Taula honetan, jarduera bakoitzari dagozkion zereginak bildu dira, baita zenbat balio duten ikastaroaren azken kalifikazioan.

Gai- multzoa	1		2		3		4		5	
Jarduera	Aurkezpena	%2	Z4	%6	Z6	%15	Z8	%10	Z9 *	%20
	Z1	%5								
	Z2	%5								
	Z3	%8	Z5	%9	Z7 *	%20				
Azken kalifikazioa	%20		%15		%35		%10		%20	

* **Z7 eta Z9 taldeko zereginak** egitea funtsezkoa da ikastaroa gainditzeko eta egiaztatzeko. Jarduera horiek kalifikatzeko, **koebaluazio-prozesu** bati jarraituko zaio, eta prozesu horretan kontuan hartuko dira bai irakasle-taldearen balioespenak (2/3), bai talde bateko kide bakoitzak taldeko gainerako kideei buruz dituen balorazioak (1/3).

Ikastaroan «gai» kalifikazioa lortzeko, beharrezkoa izango da gutxienez planteaturiko **jardueren %90 egitea eta gutxienez planteaturiko jardueren %80 gainditzea.**

7. Egutegia

Hona hemen ikastaroan zehar egin beharreko jarduerak, horietako bakoitzak ekarriko duen denbora eta noiz emango diren:

Jarduera – 2022/2023 ikasturtea	Aurreikusitak o denbora	Hasiera data	Amaiera data
Ikastaroaren hasiera.		otsailak 7	
Ikastaroaren aurkezpen birtuala. Nahitaezko parte-hartzea	ordu bat	otsailak 7 - 13:00etan	
1. gai multzoa: Iraunkortasunari buruzko gure pentsamenduak birbideratzen.	7 ordu	otsailak 7	otsailak 14
Proposaturiko jarduerak egitea.			
2 gai multzoa: 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak	5 ordu	otsailak 15	otsailak 20
Proposaturiko jarduerak egitea.			
3. gai multzoa: Iraunkortasuna maila lokalean. Ekimen baten proposamena eta lantaldeen I. topaketa.	10 ordu	otsailak 21	martxoak 2
Proposaturiko jarduerak egitea.			
4. gai multzoa: Ikuspegia zabaltzen. Iraunkortasuna eskualde-mailan.	4.5 ordu	martxoak 3	martxoak 8
Proposaturiko jarduerak egitea.			
5. gai multzoa: Lantaldeen II. topaketa. Ekimenen eta kontzeptuen arteko harremana.	10 ordu	martxoak 9	martxoak 20
Proposaturiko jarduerak egitea.			
Ikastaroaren amaiera.	37,5 ordu		martxoak 21

9. Bibliografia eta informazio-iturriak

Dokumentu interesgarriak

- Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco. Agenda Euskadi Basque Country 2030. [Euskal Ekarpena Garapen Jasangarriko 2030 Agendari](#). (34 orri)
- Nazio Batuak. Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH). Online eskuragarria: <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>
- The International Institute for Sustainable Development. 2012. The Sustainable Development Timeline. Disponible online: <https://www.iisd.org/publications/sustainable-development-timeline-2012>
- University of the Basque Country. EHUagenda 2030 iraunkorrari ekin. 2019. Online eskuragarria: <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>

Ikus-entzunezko materialak

- 15S23X. The Overview Effect [Bideoa]. Online eskuragarria: https://m.youtube.com/watch?time_continue=185&v=NX0Qh7RRpf8 (8 min)
- Chantier de l'économie sociale. Zer da ekonomia soziala? [Bideoa]. Online eskuragarria: <https://www.youtube.com/watch?v=4YVVrYoEdeU> (3 min)
- Data Center. Pentsamendu sistemikoaren hastapenak [Bideoa]. Online eskuragarria: <https://www.youtube.com/watch?v=2O1JYaFfjwc> (3 min)
- UPV/EHUko Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritza. Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda txertatzea GRAL-etan [Bideoa]. Online eskuragarria: https://www.youtube.com/watch?v=-x22jC7e_B0&t=3s (7 min)
- Jessica Gramp. How Do We Work with this Framework [Bideoa]. Online eskuragarria: https://media.ed.ac.uk/media/1_aa21xonz (9 min)
- Jessica Gramp. Introduction to Climate Change (I) [Bideoa]. Online eskuragarria: https://media.ed.ac.uk/media/1_ryk38kec (5 min)
- Jessica Gramp. Introduction to Climate Change (II) [Bideoa]. Online eskuragarria: https://media.ed.ac.uk/media/1_82u1lqz0 (5 min)
- Jessica Gramp. Breakfast [Bideoa]. Online eskuragarria: https://media.ed.ac.uk/media/Peter+HigginsA+Breakfast/1_y6tcyiy2 (5 min)
- Jessica Gramp. Introducing an Epistemological Framework [Bideoa]. Online eskuragarria: https://media.ed.ac.uk/media/1_y0uixi84 (7 min)

- Jessica Gramp. The Geological Timeline [Bideoa]. Online eskuragarria: https://media.ed.ac.uk/media/1_azy2j4u0 (7 min)
- New dream. The High Price of Materialism [Bideoa]. Online eskuragarria: <https://www.youtube.com/watch?v=oGab38pKscw> (5 min)
- Paula Naish. Aurrerabidea birpentsatzen; ekonomia zirkularra [Bideoa]. Online eskuragarria: https://www.youtube.com/watch?v=_tGmhaLFLDc (4 min)
- TEDx Talk. How much Nature do we have? How much do we use? [Bideoa]. Online eskuragarria: https://www.youtube.com/watch?time_continue=61&v=3M29BY86bP4 (16 min)
- TEDx Talk. The magic whasing machine [Bideoa]. Online eskuragarria: https://www.ted.com/talks/hans_rosling_and_the_magic_washing_machine?language=en#t-524255 (9 min)
- The Story of Stuff Project. The Story of Stuff [Bideoa]. Online eskuragarria: <https://www.youtube.com/watch?v=9GorqroigqM> (21 min)
- UPV/EHU. Zer da iraunkortasuna? Unibertsitateko komunitatearen iritziak [Bideoa]. Online eskuragarria: <https://www.youtube.com/watch?v=k3fX6ZQ9C3Q&t=124s> (11 min)